

«Gure hipotesia konfirmatu dugu, lana zuzen eginda euskararen erabilerak gora egin du»

Jasone Aldekoa (Bilbo, 1964) Hezkuntzako aholkularitzan ari da egun. Oraintsu arte Basauri-Galdakao Berritzegunean egin du lan. Hizkuntza normalizaziorako aholkulari da eta Arratia-Nerbioi eta Nerbioi Garaia eskualdeetako ikastetxeekin aritu da.

Tesia lanbideari zeharo lotua egin du, eta horregatik, aurtengo Eskola Hiztun Bila Jardunaldietan, emaitzen berri eman du. Alabaina, egindako lanaz ez du singularrean hitz egiten, hezkuntza komunitate osoak izan baititu ikerketa bidaide.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Dani Blanco

TESIAK honela du izena: *Euskararen normalizazioa hezkuntzan (2000-2010): Ulibarri programa. Euskarri teorikoa, metodologia eta faktore azalgarriak*. Bere lanbideari erabat lotutako gaia aukeratu zuela esan diogu. Zergatik?: “Lau urtean behin, hizkuntza plangintzak dituen betebeharrak guztien artean diagnostika egin eta egindakoaren gaineko hausnarketa egitera animatzen eta beharrezkoak ditut ikastetxeak. Haiek hezkuntza komunitate bateko hausnarketa egiten dute, niri koherentziaz, eskualde osokoa egitea dagokit. Aholkulari lanetan koherentzia, hau da, esaten dugunaren eta egiten dugunaren arteko lotura, ezinbestekoa da. Gure sinesgarritasuna koherentzia horretatik dator kigu”. Bazuen Aldekoak tesi jakin hori egiteko beste arrazoi bat: eskoletan hizkuntza normalizazioaren alde lanean jo eta su ikusten du jendea eta ahalegin horrek gero eragina duela frogatu nahi zuen. Emaitza positiboak azaleratu, gero eragileak motibatuzko. “Funtsezkoa da egiten dugunak zenbateko eragina duen jakitea, jakintza horrek ematen digulako lanari ekiteko gogoia”.



TERMOMETROA • JASONE ALDEKOA

Hamar urteko ikerketaren ondoren zein ondorio atera duzu?

Guretzat balioko duen teoria-marko bat eraiki dugu, agian ezin da beste leku batzuetara orokortu, hori beste batzuek esan beharko dute, baina guretzat gidari izango da. Irakasleek, gurasoek, ikasleek... hezkuntza komunitateko kide guztiek hartu dute parte tesirako lanketan eta garrantzitsua zen denok marko bera adostea: non gauden, nora goazen eta egiten dugunean denok bat etortzea. Izan ere, EAEko hizkuntza-politikaren barnean, hezkuntza alorrari dagokion *acquisition planning*-aren bilakabidean aurkitutako hizkuntza-arazo bati, erabilera-erari hain zuzen ere, erantzuteko abian jarri den normalkuntza proiektuaz gogoeta egiteko metodoa behar genuen.

Bestela esanda, hizkuntza ahularen indarberitze prozesu orokor eta konplexu baten barruan ikasle-jendeari euskara/erdarak irakasteak derrigorrezkoa duen euskara egiteari buruzko gogoeta ahalbidetuko duen marko teorikoa landu behar genuen eragileon artean.

Bestelako ondorioren bat ere atera nahi izan duzu.

Bai horixe. Hizkuntza normalkuntza proiektuek euskararen erabilera eragiten duten ala ez jakin behar genuen. Epe laburrean (ikasturte bat), ertainean (lau-bost ikasturte) eta luzean (hamar), ikertu dugu, baita egitasmoek nola eragiten duten maila indibidualean, instituzio mailan (ikastetxean), eta gizartean ere. Eta gure hipotesia konfirmatu dugu, lana zentzuz, zintzo,

zorrotz eta zuzen egiten denean euskararen erabilera, bai ahozkoak eta bai idatziak, gora egin du.

“Non ikusten da hemen zailtasun handiena? Ikasleetan, bai eskolan, eta bai eskolaz kanpo. Eta esaten duzu, zelan da hori posible? Frakaso totala da, ezta? Bai zera”

Azterketak ondo egiten direnean informazio iturri izugarriak izan daitezke, hausnarketarako eta ekin-tza planifikatzeko aukera paregabeak. Horregatik, hain zuzen ere, gure testuinguruan ikasleen erabilera zerk eragiten duen eta zerk ez ikertu behar genuen. Herri txikia gara, ez gaude ahalegin antzuetarako, ez daukagu ez giza baliabiderik, ez baliabide ekonomikorik alferrik galtzeko. Bestalde, irakasleok ere premia biologikoa daukagu, egiten dugunak noraino duen eragina eta noraino ez jakiteko. Nire lan ibilbidean teknikari batzuk jubilatu egin dira. Teknikari horiei zer edo zer esan behar diet. Premia biologikoa zentzu horretan esaten dut.

Irakasleak eta irakas komunitateak orokorrean ez al daude nekatuta euskararen erabilera sustatzaile lanetan?

Bai zera, kontrakoa: ikastetxeetako irakasleak eta gurasoak izan dira, hain justu, horren alde lan eginda-koak; ikusi besterik ez dago 1990etik aurrera irakas-munduko

zenbat artikulu, zenbat jardunaldi eta zenbat argitalpen dauden gaia- ren inguruan. Irakasle jendeak, gurasoek, beste hainbat eragilek, eskatutakoei erantzuteko antolatu zuen EAEko Hezkuntza Sailak Uli-barri programa 1996-1997 ikasturtean. Ikastetxeetako hezkuntza komunitateak eskatzen du programan parte hartzea, eurak dira premia detektatu eta borondatez hurbiltzen direnak. Ezin zitekeen bestela, gainera. Eta zer erakusten digu horrek? Irakasleak aspaldi ohartuta zeudela ikastetxeetan euskara irakasteak ez zekarrela berarekin bat-bateko euskararen erabilera. Ez, behintzat, testuinguru soziolin-guistiko guztietan.

Hamar urteko zure ikerketan irakasle- en erabilera emaitzak nolakoak izan dira?

EAEko irakasleek itzelezko ahalegina egin dute euskal irakaskuntzaren alde, batetik, euskalduntze-alfabetatzeari dagokionean, eta bestetik, irakaskuntzaren berriztatzeari dagokionean. Diodan hori bertako zein kanpoko hamaika adituk azpimarratu du. Gure laginean eta hamar urteko tartean irakasleek oso irmo eusten diotela erabilera ikusi dugu. Eta cutsi diot, zeren dagoeneko 2000. urtean irakasle gehiengoak zerabilen euskara eskola giroan. Harrezkero hizkuntza maila hobetzeko eta sakontzeko ahaleginetan ibili dira, eta horren datuak ere bilduta ditugu.

Eta gurasoak?

Behin baino gehiagotan esan dut euskal irakaskuntzak egin duen bide



ZATOZI!

ABENDUAREN 6, 7, 8

ostirala: 11:00-20:00 / larunbata: 11:00-21:00 / igandea: 11:00-20:00.
sarrera: 3€ / 12 urte arte dohain

EUSKAL KOSTALDEKO GABONETAKO AZOKA



AURTEN, BISITARIEN ARTEAN AUTO BATEN ZOZKETA!

Babeslea:



Gaura

Zure kontzesionarioa Iruñen

ANTOLATZAILE  Iparalde hiribidea, 43
20302 Iruñ-Gispakoa
+34 943 66 77 88
www.ficoba.org

BABESLEAK 

  #FeriaNavidad2013

oparoa egin duela, hein handi batean, gurasoei esker. Ikusi besterik ez dago ikastereduen bilakaeraren hiru hamarkadetako datuak, konturatzeko, gurasoek euskal irakaskuntzan jarri duten konfiantza. Jakina, gurasoen konfiantza hori irakasleen lan zintzoari zor zaio. Gure lanean eta hamarkada bakarrean agerian gelditu da gurasoek eskolarekin dituzten harremanetan nabarmen egin duela gora euskararen erabilerak, bai idatziak eta bai ahozkoak.

Non ikusten da hemen zailtasun handiena? Ikasleetan, bai eskolan, eta bai eskolaz kanpo. Eta esaten duzu, zelan da hori posible? Frakaso totala da ezta?

Bai zera. Ikasleen eremuan lortutako emaitzak behar bezala ulertzeko hezkuntzaren izaerari eta denboraren lerroari sakonago begiratu behar zaio.

Alde batetik, badakigu hamar urteko epean gaur ditugun ikasle guzti-guztiek aspaldi utzi dutela ikastetxea. Eta lau edo bost urterik behin neurketa orokorrak egiten ditugunean gure aurreko ikasleen %60-70 aldatu egiten zai-gula.

Hasierako neurketetan eta ondorengo proiektuan eta jardunetan parte hartutako ikasleei ez diegu bigarren edo hirugarren neurketarik egin, alegia. Hortaz, emaitza honek badakizu zer erakusten duen? Eskolak etengabeko ahaleginetan egon behar duela lortu duena mantentzeko edo emaitza berdinak lortzeko. Euskal Eskola Publikoaren Lehen Kongresuan, orain dela 23 urte, adituek aurreikusitakoa baieztatu dugu: eskolak bere kabuz eta bakarrik ezin du hizkuntza biziberritu, eskolaumeek ezin dute testuinguruko nagusitasun moldaeratik aldendu hezkuntzaren ahalegin bakarraz. Beste eragile asko eta askoren arrimuan bizi behar du eskolak.

Beraz, belaualdi berriak aurrekoen antzeko datoz.

Belaualdi berriekin eskolak beti zerotik hasi behar du. Hori zioten adituek, eta horixe bera

agertu zaigu guri ere. Izan ere, ikuspegi inklusibotik, etengabeko ahaleginetan jardutea da eskolaren egitekoa, beraz ondo gabiltza. Gainera, orain jakin badakigu euskararen indarberritze ahaleginetan aritu gura duenari, ez zaiola inoiz zer eginik faltako.

“Belaualdi berriekin eskolak beti zerotik hasi behar du. Hori zioten adituek, eta horixe bera agertu zaigu guri ere”

Haur-gazteen erabileraz zehaztasun gehiago emango al diguzu?

Ikerketa eremuko herri guztietan, ikasleen gela barruko eta eskolaz kanpoko erabilera-indizeak eta kale-erabilerako neurketa-indizeak kontuan hartuta, eskolako erabileraren aldeko tartea agertu da, eta batzuetan handia, gainera. Ikasleen esparruko erabilerak hamar urtean ez du esanguratsuki gora egin, epe

luzean ez behintzat, baina epe laburrean eta epe ertainean argi eta garbi ageri dira lorpenak, bai gela barruan, bai eskolaz kanpoko jardueretan baita gizarte erabileran ere.

Nola liteke hori?

Interbentzioak [hizkuntza plangintzaren baitan erabilera sustatzeko prestatutako ekinaldi zuzenak] egin direnetan, esaterako, hiru hilabeteko jolastokiko jarduerak, erabilerak izugarri egin du gora.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan esku-hartzeek berehalako emaitzak ematen dituzte, eta zein atsegina den egiten dugunak merezi duela ikustea. Baina zergatik orduan, hurrengo ikastetxera [Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara] doazenean berriro zerotik hasi behar? Dereduan hezkuntza guztia egin ondoren, zergatik ahazten zaie dena institutura doazenean? Pantaila zuria jartzen zaie parean? Ez, ez. Lortutako komunikazio-gaitasunak hor dirau, baina nerabezaroak erronka polita jartzen dio hiztunari.

donostiakultura.com



INDAR BAT DABIL HOR
MIKEL MARKEZ

Antzoki Zaharra
Abenduak 01 / 19:00
● euskara



EL MÉDICO DE SU HONRA
TEATRO CORSARIO

Victoria Eugenia
Abenduak 14, 15 / 20:00
● gaztelania



KARAOKE
CIELO RASO

Gazteszena (Egia)
Abenduak 14 / 20:00



EH SUKARRA +
IZAKI GARDENAK

Antzoki Zaharra
Abenduak 15 / 19:00
● euskara



SARRERAK
Leihatilak
www.kutxasarrerak.net
BAZKIDEAK % -10





“Jarreraren botoia jo eta zum! erabilerak gora egiten du? Zalantzan jarri genuen”.

Batetik, nerabearentzat funtsezkoa diren hainbat erregistro, lexiko, esaera eta esamolde, garatu ez badi-ra ezin ditu erabili. Bestetik, nerabe elebiduna hizkuntza-hautua egiteko gai da. Izan ere, hautu hori, nortasuna eraiki ahala, berak egin nahi du. Nekez onartzen du helduak esandakoa ezbaian jarri gabe. Horregatik, hain zuzen ere, nerabeei begira, pentsatzen genuen esku-hartzeak ere aldatu behar genituela, eta agian, haien ekarpenetatik eta haien jarreraren lanketatik hasi behar genuela.

Nerabeen euskararekiko jarrerak landuz proba bat egin zenuten.

Eskualdeko bost institutuetakoko ikasle lagin bat hartu genuen, DBH2. mailakoa, eta lanean hasi ginen. Hor ikusi genuen 3-4 hileko interbentzioen ondoren izugarri

egiten zuela gora euskararen erabilerak, gela barruko ikastaldearen erabilerak. Ikasleen ahozko erabilera aldagai askoren menpe dago, eta pozgarria izan zen lortutako eragina. Ia-ia 400 nerabeekin hizkuntzaren erabileraren gaineko hausnarketa eta konpromisoa landu genuen. Emaitzetan gainera, argi agertu zitzaigun ikastaldean eskola barruko erabileran nabarmen egin zela gora. Eta hori lau hilabeteko interbentzioaren ondorioz. Badakizu zer erakutsi zigun horrek? Irakasle legez, norbere eskuetan asko dagoela egiteko!

Jarreretan eragiteak badu ondorioz, orduan.

Esperientzia honetan, galdera ondokoa da: jarreretan eragiteak erabileran eragin zuzena al du? Ergo jarreraren botoia jo eta zum! erabilerak gora egiten du? Zalan-

tzan jarri genuen, agian kontrolatu gabeko beste hainbat aldagai eragin zuten. Arestian aipatu bezala, oso zaila da erabilera aldagai bakarrean isolatzea. Ezin dugu kausa-ondorio arau errazik aurkitu. Hasierako oinarritzko lerroan eta azkeneko emaitzen artean neurtutako jarreretan aldaketa gutxi zegoela ageri zen, ordea erabileran aldaketa nabarmena. Kasu horretan jarrerak baino beste aldagai batzuek pisu gehiago izan zutela pentsatu genuen. Berbarako, klaseak emateko metodologiak, ikasleei soziolinguistika-oinarri batzuek emateak, hizkuntza-hautua egiteko ardura nerabeei eurei sorrarazteak, hizkuntza-baliabideak non eta nola aurkitu irakasleak, gazte-hizkerari gelan tokia egiteak, horiek ere eragin dezaketela irudikatzen zitzaigun.

“Bost institututako ikasle lagin bat hartu genuen, DBH2koa. Hor ikusi genuen 3-4 hileko interbentzioen ondoren izugarri egiten zuela gora gela barruko euskararen erabilerak”

Ikerketaren harira, Pablo Suberbiolak *Berrian* zioen zuzenagoa dela datuei honela begiratzea: ez zenbat jaisten den erabilera gelatik jolastokira, baizik zein den batez bestekoa gizartearen eta zer plus sortzen duen eskolaren eraginak.

Hala da, jakin badakigu irakaskuntzak euskara irakatsi, irakatsi egiten duela, baina ez duela lortzen gazte-jendea euskalduntzea. Bestela esanda, hiztun gazteek euskara-gaitasuna lortzen duten arren, euskara ez dela euren ohiko mintzajarduneko berezko hizkuntza bihurtu; euskararen ezaguerak ez dakarrela berezko erabilera naturala, alegia. Horregatik, azken bi hamarkadetan eskola hiztun bila dabilela.

Arrue ikerketaren emaitzek argi eta garbi adierazten digute, ikasle-jendeak nonbait euskaraz egiten badu eskolan egiten duela, irakasleak ingurumarian daudenean, behinik behin. Gure laginak lortutako emaitzen gainean esandakoa hemen ere agerian gelditu da: irakaskuntzak azken hiru hamarkadetan asko egin du, bai euskararen ezaguera bai erabileraren bultzadan. Edonola ere, eskolaumeek ezin dute testuinguruko nagusitasun moldaeratik aldendu eta jolastokia, bere berezko izaeragatik, itzulginguruko ezaugarriei gela baino askoz lotuago dago. Horregatik, hain justu ere, hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzaren behar da erabileran aurrera egin nahi bada: irakasleena, langile ez-irakasleena, ikasleekin harremanetan diharduten gizarte zerbitzuetaoena, udalerrietako kultur-kirol-aisialdi elkarteena, eskolarekin hartu-emanak dituzten enpresa eta hornitzaileena eta, guztien horien aurretik, familia. ■

